



Iritziak

Naziometroaz



IKER IRAOLA ARRETXE
EHU-KO SOZIOLOGIA
IRAKASLEA

Abenduan Euskal Herriko soziologiarentzako eta, oro har, gizarte zientzien arloko ikerketentzako tresna baten berri izan genuen; Naziometroa, hain zuzen. Urtean bitan argitaratzen joango den inkesta honek Euskal Herri osoa du ikerketa eremu, eta Telesforo Monzon eLab Laborategiaren eta EHUko Parte Hartuz ikerketa taldearen elkarlanaren ondorio da, Aztiker iker-gunearen esku-hartzeaz gainera. Euskal Herriari buruzko analisiak egin nahi dituen edonork dakien bezala, lehenengo arazoa nazio mailako datuen gabezia da. Horren aurrean, maiz azterlanak administrazio eremu txikiagoetara mugatu behar dira, eta beste askotan Espainiako eta Frantziako markoetan egiten dira. Beraz, Euskal Herri mailako datuak eskura izatea berri pozgarria da.

Lurralde osoko datuak aldi berean jasotzeaz gain, baina, Naziometroaren ekarpen nagusia gaiari gerturatzeko modua da. Euskal Herriaren etorkizun politikoari buruzko ikerlan soziologikoak egon badira, Araba, Bizkai eta Gipuzkoara mugatuta batez ere. Baina Naziometroak subiranotasunari buruzko azterlanetan ekarpen nabarmena suposatzen duela uste dut. Areago, Naziometroak azken urteotan Euskal Herriko independentismoari buruz zabaldutako ikuspegi ezkorrak zalantzan jartzeko materiala mahai gainean jartzen digula esango nuke. Jendartean nagusitzen diren iritzi ildoak, noski, ez dira naturalki zabal-

Lurralde osoko
datuak aldi berean
jasotzeaz gain, baina,
Naziometroaren
ekarpen nagusia
gaiari gerturatzeko
modua da

tzen, eta gizarteko sektore guztiek ez dituzte haien ikuspegiak hegemoniko eta nagusi bilakatzeko ahalmen berdinak. Zentzu horretan, datu hotzetan oinarrituta baino, helburu politiko zehatzei loturik zabaldu izan dira azken urteetan Euskal Herriko independentzia zaletasunari buruzko ikuspegi ezkor eta are katastrofistak ere. Ziur aski, ezkortasun giro horretan, hedabide eta korronte politiko zehatzen jardunari, Euskal Herrian azken hamarkadako aldaketa politikoek sortutako *erresaka efektua* gehitu behar zaio: urte luzetako gatazka gordinaren ostean, independentismoaren ildo desberdinek egoera berrira egokitze bizi izan duten –eta bizitzen ari diren– prozesuaz ari naiz.

Naziometroaren lehen inkestako datu zehatzei dagokienez, azpimarratzekoa

da Euskal Herria “independizatzeari” buruzko jarreraren eta euskal –edota nafar– estatu bati buruzko erreferendumean hartu beharreko jarreraren artean dagoen aldea. Hori da inkesta honen beritasunetako bat, eta aurrera begira adi egoteko gaia dugu. Izan ere, Euskal Herria independizatzearen (ekintza gisa adierazita, eta ez helburu politiko gisa) aurka agertu da gehiengoa (%46); baina, aitzitik, erreferendum adostu batean baiezkoak irabaziko lukeela (%43 alde, eta %32 aurka) ikusi dugu aldi berean. Iruditzen zait, Hego Euskal Herrian bederen, independizatzearen ekintza Kataluniako prozesuarekin, eta momentuz bizi duen porrotarekin, lotzen dela garaiotan.

Naziometroa arakatuz aurkitzen dugun beste gai deigarri bat Nafarroa Garaiko datuak ditugu. Herrialde horretan, erreferendum adostu batean euskal estatuen alde %26k (eta aurka %54k) egingo lukeen bitartean, nafar estatu bati buruz galdetuta, baiezkoa %35era iritsiko litzateke. Aurkakoak gehiago izaten jarraituko lirateke (%43), baina aldeak oso modu adierazgarrian murriztuta. Gai hau nabarmentzekoa da, euskal estatu baten alde egiten duten guztiek ez baitute nafar estatu baten aldeko jarrera erakusten, adibidez. Edonola ere, hurrengo txostenetan jarraitu beharreko gaia da, Euskal Herriko gatazkan, Europako beste kasu ugartan ez bezala, lurraldetasuna korapilo zentrala baita. ●